

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Aurrekontuak, Finantza-kudeaketa eta Diruzaintza

2024ko ekitaldian kreditu-transferentziaren sistemaren bidez aurrekontu-aldaketa egiteko 100. dosierraren behin-behineko onespena

2024ko azaroaren 22an egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zien Vitoria-Gasteizko Udaltzariak 2024ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu-aldaketak egiteko dosier honi:

– 100. dosierra: 36.000,00 euroko kreditu-transferentzia "1145 2381 481.24 Hitzarmena EDE elkartearekin, Emaktiva programarako" aurrekontu-partida sortu berrira.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 165. artikuluan, Arabako lurralde historikoko Toki erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen Testu Bategina onetsi zeneko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikuluan xedatutakoaren ildotik, hamabost egun balioduneko epea zabaltzen da, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin, Udaltzari zuzenduta.

Behin betiko onetsizat joko da dosierra baldin eta jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 22an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO